

Michael F. Anderson 18 year of age, April 26, 195


The car kills people on the
car road during the war.



The woman and the son are beating burger
weat to their house.



The girl
is going
for water




The boy carrying blood at home

James V. Mulbah

I am 19 year of age

Hunger is in this house. No toilet in this place at any time




Baby Mother

Welcome our Father



old man



Road to the Camp -


Road from the bush

Emmanuel K. Baysah 18 year old 4/27/0005

A man with his material from the Distribution ground




Esther K. Sallak
age 19 years



This is my House and also this is
the pot that I Cook in ^{here} in this Camp

Name: John M. Joekolle AGE 22 years


This is the fire that was
behind us.





You are going to die

Paul G. Kollie Age 18

They are going for their foods



F. Edwin K. Connor - AGES 25



The men is
drawing water
from the pump

Salala I D P Camp
Block-M-Quarter-3.

Etorkizuna

Harris Flomo (2. maila)

Gure etxera eramango gaituzte, eta eskolara joango gara. Nik lurra landuko dut niretzat eta nire familiarentzat. Aitak eta amak eskolara bidaliko naute. Nekazaria izango naiz amarentzat eta aitarentzat. Animaliak hilko ditut, jateko. Lurra landuko dut gure jendearentzat, gure jaun Jesu Kristoren izenean; berriro ere, palmondoak haziko ditut amarentzat. Amarekin eta aitarekin biziko naiz. Handitan, sendagilea izango naiz, eta nire familiari lagunduko diot.

Massayan Jallah (8. maila)

Lofa konderrian nengoenean, ondo jaten nuen eta eskolara ere joaten nintzen. Lofa utzi nuenetik, ordea, arazo handiak ditut lekualdatuen esparruan dirua lortzeko. Eskolari dagokionez, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak laguntzen digu lekualdatuentzako eskolan.

Liberiako presidentea izan nahi nuke, nire herrialdea garatzeko eta etorkizunean liberiarrei laguntzeko. Gerrarik gabeko eremu on batean bizi nahi nuke berriz. Gerra ez baita ona: gauza txarrak egitera behartzen zaitu. Herrialde batean gerra dagoenean, ez dago bakerik, ez ulermenik, ez hezkuntzarik.



Anonimo

Nire etorkizuna



Itxaropena dut etorkizunean, bai
baitakit egoera ez dela beti berdina
izango. Horrenbestez, nire egoera
aldatu egingo da etorkizunean. Laguntza
izango dut hezkuntzarako. Jainkoak
gogoko izango duen bizitza biziko dut.
Hori dela eta, ez naiz kezkatzen, ez
baitakit zer ekarriko duen etorkizunak.
Bizirik gauden artean ez dugu
itxaropena galdu behar.


Stillos | Joseph Koller | Ende 14

in Am2000? oder



Wonders Grades 7-8





MARY PEWEE Year 15 Year





My life Will be fine When I graduate From School
Because I will be working.



My life will be fine when
go to school. Because I will be
going to school.

Agnes K. Nwada Pelee
Age 16 year



Hospital.



I am a nurse.



School Building.



I am going to school.

I pray to God for Good President in this Country
Liberia and for Me to continue my education and
also to be a nurse.



Subject Drawing Skill

MAY 17/05

Barkolleh Yi Sumo

Topic: How your life will be tomorrow.



School
Building

Elementary and
Junior and Sen,
high school



He is reading
about the good
news: And the
good news say
that peace, peace,
come in Liberia.
let us have good
development in
our nation.

Tarnue.F. Barbu


5th
Grade



This will be my
life after the
Camp


पापये फ्लेमो
K G-2

11



MOSES TAKES GOODBYE
AGE 15 YEAR OLD





James Gayflor

1990. urtean, gerra hasi zen Liberian. Jendea elkar hiltzen hasi zen pistolekin, eta goseak ere hiltzen zituen. Denbora horretan, jendeak sufritu egin zuen, gerra hasi eta jendea borrokan hasi zenean. 1995. urtean, liberiar askok galdu zuten bizia. Liberiako gerraren ondorioz, ondasunak eta bizia galdu zituen jende askok. 2002. urtean, gerra hasi zen Monrovia, eta jendea oso gaizki pasatzen hasi zen, janaria falta zelako. Objektuak ere bilatzen zituzten, bizirauteko soilik.


2004. urtean, Elikagaien Mundu Programa Lofako esparruari laguntzen hasi zen. Garai hartan, esparruko egoera ona zen. NBEk xaboia, janaria prestatzeko materiala, lotarako materiala eta elikagaiak ematen zizkien lekualdatuei eta nik, garai hartan, Jainkoari eskerrak ematen nizkion nire bizitzagatik. Elikagaien Mundu Programari ere eskerrak eman nahi dizkiot, lekualdatuei laguntzen baitie, garia, olio, babarrunak, kokoa eta gatz emanda. Gerra-garaian, jendeak gaingaritik ateratzen den garia lor zezakeen jateko, eta Jainkoari eskerrak ematen dizkiot gari hori lor dezakedalako. Gerrak nire etxetik urrundu ninduen arte, kondizio onetan bizi nintzen, eta jendea ez zuen goseak hiltzen.

4. kapitulua

Bizitzeko leku bat

Gonzalo Sánchez-Terán.

EJZ Afrika mendebaldeko advocacy arduradun erregionala.





2005. urtean Salalako lekualdatuen esparruan bizi ziren haurrek ez zuten gerra besterik ezagutzen: Liberia gerra basati batek lokaztu zuen 1989. urtetik aurrera, eta 250.000 pertsona inguru hil ziren. Haur haien guraso gehienek ez zuten ezegonkortasun politikoa eta indarkeria baino ezagutu 1980. urtean Samuel Doe sarjentu erdialfabetatuak boterea lortu zuenetik. Sarraski etnikoek eta oposizio modu orok eragindako errepresio errukigabeak suntsitu zuten herrialdea. 2005. urtean ez zegoen liberiarrik demokraziaren antzeko ezer ezagutu zuenik, ezta zaharrenek ere: Liberia 1847. urtean eratu zen; ongi armatuta eta Ameriketako Estatu Batuen babesa zuen gutxiengo batek bereganatu zituen boterea eta aberastasuna, eta horrek pobrezia eta bazterketara kondenatu zituen Liberiako herritar gehienak.

2006ko urtarrilaren 16an egin zen Ellen Johnson-Sirleaf Liberiako presidentea izendatzeko inbestidura-ekitaldia, eta gertaera hark aro berri baten hasiera ekarri zuen Mendebaldeko Afrikako herrialde txiki horretara: liberiarrek, lehenengoz, askatasun osoz eta gerra-mehatxurik gabe bozkatu ahal izan zuten beraietako baten alde, mende eta erdiko heriotzei eta injustiziarri amaiera jar ziezaien. Johnson-Sirleafek betetzeko duen zeregina ikaragarria da: suntsitutako nazio baten zatiak bildu eta Liberia, behin-goz, bertan bizitzeko leku bihurtzea. Ezin da beheragotik hasi: Nazioarteko Moneta Funtsaren arabera, datozen hogeita bost urteetan herrialdeak urteko %10eko hazkunde-tasa izango balu ere, Liberiak ez luke lortuko 1980. urtean zuen egoerara itzultzerik.

Azpiegiturak suntsituta daude; hezkuntza-sistema, deseginda; parlamentua, berriz, “gerrako jauntxo” eta “matxinoen buruzagi” ohiek engainatuta.

Egoera horretan, presidenteak behin eta berriz adierazi du Liberia gerraren hatzaparretan eror daitekeela berriro nazioarteko komunitatearen babes irmorik eta etengaberik gabe, eta inguruko herrialdeak bide beretik eram ditzakeela.

Planetako eremu txiro eta bortitzenetariko baten bihotzean dago Liberia. Liberiako gerra zibila ezin da ulertu duela zenbait hamarkadatik Mendebaldeko Afrika astindu duten krisi politikoak eta sozialak ulertu gabe. 2006. urteko urrian, Unicefek esan zuen oraindik ere Mendebaldeko Afrika dela haur batentzako munduko lekurik txarrena. Liberiako ezegonkortasunaren arrazoiak sustatu eta larritu zituzten Sierra Leonako eta Boli Kostako gerrek, Gineako eta Togoko diktadorek, Sahelgo lehorteek eta Nigerian boterea lortzeko izandako gerrek. Liberia inguratzen duten herrialdeak krisian eta armaz beteta daude, eta gero eta langabezia-indize altuagoak dituzte; horrenbestez, beharrezkoa da nazioarteko komunitateak ahalegin guztia egitea lekualdatuena eta errefuxiatuen esparruetan urteak eman dituzten herritarren eta, bereziki, haurren eguneroko arazoak konpontzeko, baita hamaika herrialderi azpigarapenetik eta indarkeriatik ateratzea eragozten dien egiturazko arazoei aurre egiteko ere. Historia errepikatu ez dadin, beste behin ere.

Izan ere, errepikatu da: 1991. eta 1997. urteetan, aberriratzeko programei ekin zien Nazio Batuak erakundeak; 400.000 liberiar errefuxiatu itzuli ziren etxera, baina ihes egin behar izan zuten beren etxeetatik eta arroz-soroetatik, berriro hasi baitzen gerra. Azken urteotako desarmatze-prozesua ere ez da Liberiak bizi izan duen lehena: 1996. eta 1997. urteen artean, Lofa konderrian soilik (ipar-ekialdean), Ulimo K taldeak, eremuko matxino-talde boteretsuenak, 700.000 tirogai-pieza baino gehiago entregatu zituen. Zazpi urte geroago, berriz, beste desarmatze-prozesu batean, 800.000 tirogai jaso ziren. Eremu horretan porrot egin dute birgizarteratze-prozesuek, ez dago lan-aukerarik eta segurtasunik eza orokortua da; zenbait hamarkada sutan daramatzen lurraren gainera iraulitako olio-bidoiak dira arazo horiek guztiak.

Herrialde emaleek hiru arazori erreparatu beharko liekete, indarkeriazikloari berriro ez ekiteko: haur soldaduen egoerari, langabeziari eta gazteen heziketari ezari, eta afrikar gehiegi indarkeriara eta atzerrira joatera bultzatzen.



Haur soldaduak

Gerra amaitzean, liberiar lurraldean banatutako talde armaturen batean borrokan aritu ziren neska-mutikoak iritsi ziren Salalako eta Monserradoko lekualdatuen esparruetara eta Gineako hegoaldeko errefuxiatuen esparruetara. Neska-mutiko haietariko asko parte hartzen ari ziren Desmobilizazio, Desarmatze eta Birgizarteratze Programetan; beste batzuek fusilak bazterrean utzi zituzten, besterik gabe, eta nekatuta iritsi ziren oinez, batek daki nondik. Liberian bake-hitzarmenak sinatu zirenean, herrialdean 21.000 neska-mutiko soldadu zeudela zenbatesten da, Lurmutur Hiriko Printzipioetan adierazitako haur soldaduen definizioaren arabera. Definizio horrek kontuan hartzen ditu borrokalaria, zamaketa-riak, sukaldariak, sexu-esklaboak eta abar. 21.000 haur horietatik, 12.000 baino ezin izan zuten sartu Desmobilizazio, Desarmatze eta Birgizarteratze Programetan. Horrek adierazten du milaka haur egon zirela iraganak eragindako trauma jasaten, inolako babesik gabe eta, batzuetan, familien eta auzokoen gizarte-bazterketa jasaten. Ezinbestekoa da moduren batean edo bestean gerran parte hartu duten haur guztiengana iritsiko diren proiektuak diseinatzea.

Liberian, Desmobilizazio, Desarmatze eta Birgizarteratze Programen bidez, haur soldaduei helduei bezala ordaintzea erabaki zen; hau da, 300 \$ ematea entregatzen zuten arma bakoitzeko. Gerra beste esperientziarik izan ez zuten haurren eskuetan dirua jartzeak ez zuen lagundu, ordea, haur horiek birgizarteratzen; izan ere, mesfidantza-sentimendua barneratu zuen tokiko komunitateetan: nekazariak uste zuten, eta ez zuten arrazoi faltarik, diru hori odolez zikinduta zegoela. Horri, gainera, erantsi behar zaio haur soldaduentzako programa gehienetan baztertu egiten direla itzulera-komunitateetan bizi diren haurrak, eta horrek birgizarteratzea are gehiago zailtzen duen gaitzondoa eragiten du. Bereizketa horietatik ihes egiteko, haur soldaduentzako programek kontuan izan behar dituzte gerrek eragindako eremuetan bizi diren adin txikikoak, baterako etorkizuna eraiki ahal izan dezaten.

Gerra amaitu zenetik, hazi eta hazi ari da delinkuentzia Monrovia. Gerran parte hartu zuten adin txikiko askok ezin izan zuten jatorrizko herrixketako bizitzara egokitu, eta hiriburuetara edo sail handiak dauden lekuetara joan

ziren. Han, ordea, bazterketarekin egin dute topo, eta delitu egiten duten haur edo gaizki ordaindutako langile bihurtu dira bizirik irauteko. Egoera horretan, adin txikikoak erraz menderatzen dituzte Boli Kostako gerrarako edo Ginea hauskorrean izan daitekeen leherketarako soldaduak erreklutatzen dituztenek. Beharrezkoa da haur horiek berreskuratzea eta hezkuntza-sisteman barneratzea, berariazko laguntza-programen bidez.

Hauxe da erakunde humanitarioak eta tokiko agintea gehien kezkatzen dituen: Sierra Leonan gertatu zena gertatzea Liberian. Izan ere, nazioarteko komunitateak, hasiera batean, gatazka amaitu berri zuen herrialdea berreraikitzekeo prozesuarekiko gogo bizia agertu zuen; baina, hasierako unea igaro ondoren, beste krisi batzuetan parte hartzen hasi ziren emaileak. Gertaera hark gerra-garaiko antzeko egoeran utzi zuen Sierra Leona, pobrezari eta gizarte-aztoramenari dagokionez. Ildo horretan, “emaileen nekea” asko salatu da Ginean ere; liberiar errefuxiatuentzako laguntza desagertu egin zen ia eta, horren ondorioz, bigarren hezkuntzako eskolak itxi egin ziren. Haur soldaduak birgizarteratzeko prozesuak erdibidean geratzea da funtsak murriztearen lehen ondorioa; bigarrena, berriz, ezinezkoa izaten dela aurrea hartzeko jarduera iraunkorrek ezartzea. Gatazka ondoko egoerari aurre egiteko, beharrezkoa da emaileek konpromiso irmoa eta iraunkorra izatea, gobernuaren ekimenak eta tokiko eta nazioarteko GKE-en ekimenak babesteko, eta egoera horretan dago Liberia.

Eskola-adinean zeudenean egitura militarretan parte hartzera behartu zituzten haurren bizitzak normalizatzeko lan egiten denean, edo beste haur batzuk sare horretan ez erortzeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-ahalegina egiten denean, ezinbestekoa da haur horiek erreklutatzearen arduradun izan ziren helduak justiziaren aurrera eramatea. Gerraren lehen fasea amaitu zenean (1989-1997), buru militarrek ez zuten zigorrik jaso, eta horrek beste buru batzuk animatu zituen armak hartzera eta adin txikikoak erreklutatzea, soldadu kopurua areagotzeko. Charles Taylor Hagan auzipetu zuten, eta hori, zigorgabetasunaren amaieraren froga baino areago, zigorgabetasunaren egiaztapena izan zen; izan ere, gerraren arduradun gehienek aske jarraitzen dute, eta batzuek eserleku bat ere lortu dute parlamentuan. Horretaz gainera, ondoko herrialdeetako presidentek ere egoera horren arduradun dira, matxino-taldeek beren herrialdeetatik erreklutatzen baitzituzten gazteak. Beharrezkoa da talde horietako arduradunak eta talde horiek babestu zituztenak epaitzea, Mendebaldeko Afrikan gailendu den zigorgabetasunari amaiera emateko.



Langabezia

Jatorrizko herrixketara eta hirietara itzultzeko prozesuaren amaieran, Salalako gazteek ez zuten etorkizun handiko errealiterik. Uste da biztanleriaren %80 dagoela langabezia Liberial. Gainera, langabeziak gazteei eragiten die gehien. Herrialde gutxitan da gazteen analfabetismo-tasa helduena baino altuagoa, eta horietariko bat Liberia da. Hamabost urteko gerrak lehen hezkuntzako eskolarik zapaldu ez duten belaunaldiak ugaltu ditu. Mendebaldeko Afrikan, gazte langabetuen kopurua heldu langabetuen kopurua halako hiru da. Mendebaldeko Afrikako milioika gazterentzat, oraindirik eta etorkizunik ez izatea da lanik ez izatea. Arazoa ez da desagertuko, eta ez da hobetzen ari. Nazio Batuak erakundearen arabera, 2020. urtean 430 milioi biztanle izango ditu Mendebaldeko Afrikak; horrek adierazten du 100 milioi gehiago izango direla hamabost urte baino gutxiagoan.

Langabeziaren ondorioak izugarriak dira. Gazte askorentzat, indarkeria da aurrera egiteko modu bakarra, bai gaizkile moduan, bai matxino-talde batean sartuta; beste askorentzat, atzerriratzea da etorkizunerako bide bakarra, eta hori gero eta arriskitsuagoa da. Itzultzeko edo aberriratzeko prozesuen aurretik ere, gerraren amaierak itxaropena sortu behar zuen arren, Ameriketako Estatu Batuetara, Kanadara edo Australiara eramango zituzten birkokatze-programetan sartzea zen lekualdatuen eta errefuxiatuen esparruetako gazteen ametsa. Batzuk, gainera, basamortua gurutzatu eta Europara iristeko aukeraz mintzo ziren.

Liberiako hezkuntza-sistema suntsitzean, herrialdean zeuden lanbide-heziketako zentro gutxi haiek suntsitu ziren. Liberial, eremu horretako gainerako lekuetan bezala, ez dago gaitasun teknikodun langilerik eta, hori dela eta, erakunde humanitario askok erbesteratutako jendea ekarri behar izan du; gaitasunik izanez gero, bertako jendeak bereganatu behar litzuke lanpostu horiek. Nazioarteko komunitatea finantza-ahalegina egiten ari da herrialde hori berreraikitzeke; ahalegin horrek beren buruak mantentzeko ardura beregana dezaketen profesionalak eskatuko ditu berehalako etorkizunean. Beharrezkoa da merkatuaren azterketan oinarritutako kalitatezko lanbide-heziketarako zentroak sortzea, Liberiako ekonomia-egitura berregiteko.

Berrogeita hamarreko, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan, Liberia, edo Liberiako biztanleriaren zati bat, meatzaritzari esker aberastu zen. Nekazaritza-jarduerak bigarren maila batean geratu ziren, eta gizarte-eskalako maila baxueneko lantzat hartu ziren. Oparotasun-epe haren ondoren, ordea, ezegonkortasun politikoa iritsi zen eta, ondoren, gerra. Hamalau urtean, Liberia landatarra mota guztietako talde matxinoek okupatu zuten, eta herriak suntsitu eta sailak arpilatu zituzten. Horren ondorioz, Liberia lurralde emankorra bazen ere, arrozaren inportatzaile bihurtu zen, eta horixe zen bertakoen oinarrizko elikagaia. Ezinbestekoa da nekazaritzan gaitzeko programak abian jartzea herrixketan, Liberiak bere kabuz lortu ahal izan ditzan elikagaiak, eta landa-eremuetako gazteek aurrera egin ahal izan dezaten.

Munduan egin diren Desmobilizazio, Desarmatze eta Birgizarteratze Programa askoren ebaluazioek erakusten dute birgizarteratzea ia beti lausotu egiten dela, eta amaitu gabe geratzen dela funtsik eta irmotasunik ezagatik. Borrokalaria batek lana aurkitzen ez duen artean ez da amaitzen birgizarteratze-zikloa. Liberialan edo suntsitutako beste herrialderen batean, azpiegitura berriak sortzeko prozesuarekin batera, tokiko enplegua sustatu beharko litzateke, lana sustatzeko planen bidez. Ildo berean, erakunde humanitarioek mikro-kredituen programak garatu beharko litzukete, ekintzaileak sustatzeko.



Eremuko segurtasuna

Mendebaldeko Afrikak, hango herrialdeek independentzia lortu zutenetik, egoera hau bizi izan du: bost gerra zibil, arrakasta izan duten hogeita hemeretzi estatu-kolpe, hiru altxamendu separatista eta estatu-kolperako makina bat saiakera. Azken hamarkadan, eremu horretako ia estatu guztiek hartu dituzte errefuxiatuak, edo bertako herritarrek erbesteratu egin behar izan dute. Bi egoerak aldi berean ere bizi izan dituzte zenbait herrialdek; esaterako, Liberiak, Boli Kostak eta Sierra Leonak. Emaizta ikaragarria izan da: Mendebaldeko Afrikako Estatuaren Ekonomia Elkartea (ECOWAS, ingelesez) osatzen duten hamahiru herrialdeetatik hamaika planetako hogeita bi herrialde pobreenen artean daude, Nazio Batuen giza garapena-

ren indizeari jarraiki. Ghana da erdi-mailako garapena lortu duen bakarra; Liberia, berriz, ez da agertu ere egiten indize horretan, datuak falta direlako. Are gehiago, gutxien garatutako munduko bost herrialdeak eremu horretakoak dira: Ginea Bissau, Burkina Faso, Mali, Sierra Leona eta Niger, hain zuzen ere. Ondorioak jakinak dira: muga zeharkatu eta beren bizitza arriskuan jartzen duten pertsonak, etorkizun hobe baten bila, edo mugak zeharkatzen dituzten gatazkak (esaterako, sute suntsitzaileak).

Boli Kostako gatazka da, oraindik ere, Liberiako bakearentzako mehatxurik larriena. Giza eskubideen alde lan egiten duten zenbait taldek salatu duteenez, matxinoek nahiz armadak borrokalariak bildu dituzte Liberialan. Boli Kostan desarmatze-prozesuan entregatutako arma bakoitzeko 900 \$ eman go direla dioen zurrumurrua zabaldu da, eta hori erakargarri boteretsua izan da Liberiako ehunka gazterentzat. Nazio Batuak erakundeak 1721 Ebazpena onartu zuen 2006ko azaroan, eta hori 2007ko urria arteko luzapentzat hartu dute krisiaren eragileek: inork ez dio irtenbiderik ikusten gatazkari, eta badi-rudi nazioarteko komunitateak ez diola jaramonik egin nahi. Ondoko herrialdea gerran dagoenez, Liberia borrokalariak biltzeko eta haiekin kontrabandoan aritzeko lurralde naturala da. Nazioarteko komunitateak Boli Kostako gatazka konpontzeko konpromisoa hartu behar du, Liberialan berriro indarkeria-egoerak ikusi nahi ez baditu, bederen.

Liberia gatazka-ondoko egoeran dago; Ginea, berriz, gatazka-aurreko egoeran. Ekonomia gainbehera dator azken bost urteetatik hona, eta kontinente horretako bigarren inflaziorik altuena duen herrialdea da. Egoera horretan, oso handia da berehalako borroka izateko arriskua. Ginea erortzeak atzetik eramango lituzke, halabeharrez, Liberia eta Sierra Leona. Baina ez da, etorkizunari begira, aurrean duen hodei beltz bakarra: Liberiako gerra zibila amaitu ostean, ginearrek hegoalderantz jo zuten, berreraikitze-funtsek agindutako lanaren bila. Liberiako ipar-ekialdean biziak izan dira, historikoki, etnien arteko tentsioak, eta Gineatik jendea etortzeak gorroto zaharrak pitz ditzake. Nazio Batuak erakundeak garapen demokratikoaren eta ekonomikoaren beharrari eremuko ikuspegitik begiratu beharko lioke, Liberialan bakea bermatzeko.

Baina etorkin horiek guztiak ez dira Gineatik soilik iristen hegoalderantz. Maliko, Burkina Fasoko eta Nigerreko (munduko populazio-hazkunde handiena duen herrialdea da Niger) biztanleek bizitza hobearen bila jarraituko dute beren herrialdearen mugetatik haratago, eta, Europara

sartzeko bideak ixten badira, hegoalderantz jo beharko dute. Boli Kostan begiztatu dugun etnien arteko oreka-galera hori gutxiago aurreratutako gizarteetan ere gerta liteke; adibidez, Liberian. Horrek, gainera, ondorio zorigaiztokoagoak izan ditzake. Sahelgo herriek ezin badute ekonomikoki garatu, horrek eremuko segurtasunean eragingo du epe labur eta ertainean. Hala ere, Europako Batasunak eta Ameriketako Estatu Batuek oztopoak jartzen dizkiote, oraindik ere, kotoiaren salerosketari, eta horixe da herrialde horien esportazio-produktu nagusia. Ameriketako Estatu Batuek eta Europako Batasunak nekazaritzarako diru-laguntzak ematen jarraitzen duten bitartean eta Sahelgo estatuak lotura horietatik askatzeko azpiegiturak sortzea sustatzen ez den bitartean, saihestezinak izango dira migrazio-mugimendu handiak, eta ezingo dira ondorioak aurretik jakin.

Aberastasuna mehatxua ere izan daiteke. Gineako Golkoko herrialde guztietan eta basamortuan, petrolioak aurkitu da. Azterketak egiten ari dira Ginean, Liberian eta Boli Kostan. Baina kasu gutxitan lagundu dio petrolioak, erabat, Afrikaren garapenari. Kasurik nabarmenena Nigeria da. Petrolio gordina esportatzen dutenen artean, munduko zazpigarren herrialdea da; baina, hogeita bost urtean, hamasei maila galdu ditu munduan zuen lekuari dagokionez, Barne Produktu Gordinaren arabera. Petrolioak, egurrak eta diamanteek bezala, Liberiaren eta Mendebaldeko Afrikako gainerako herrialdeen garapen ekonomikoaren hasierari lagundu diezaioke, eta hala egin behar du. Horretarako, ordea, erauzketan aritzen diren multinazionalak eta gobernuek behingoz gardentasun osoz argitu behar dute lehengai horiek sortzen dituzten funtsen norakoa.

Liberiarren eta nazioarteko komunitatearen eskuetan dago Liberian berriro lekualdatuen esparrurik ez irekitzeko aukera, ametsa.

5. kapitula

EJZ Internazionale





Sakala IDP Camp





Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren presio politikoa

Ez badira kontuan hartzen behartutako migrazioen atzeko arrazoi sakonek, larrialdi-egoeretako laguntza ematera mugatuko dira gure zerbitzuak. Laguntza hori beharrezkoa izan daiteke errefuxiatuen fluxuaren lehen faseetan, baina ez die puntu nagusiei erreparatzen; hau da, zergatik bihurtzen den pertsona bat errefuxiatu, zer politika ezartzen zaizkion erbestean dagoenean, eta zer egin daitekeen beste batzuek antzeko zoririk izan ez dezaten. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren zereginetako bat, sortu zenetik bertatik, errefuxiatuen eskubideak defendatzea izan da, bai tokian bertan, bai nazioan, bai nazioartean.

2001eko irailaren 11ko erasoan ondoren, adibidez, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak bere kezka sakona agertu zuen ekintza horrek nazioarteko babesik gehiena behar zuten pertsonengan izan zituen ondorioengatik: errefuxiatuak eta asiloa eskatzen dutenak “kriminalak” direlako perzeptzio publikoa geroz eta handiagoa da eta, inolako frogarik izan gabe, errefuxiatuen eta terrorismoaren arteko loturak sortzeko saiakerak egin dira; zailtasunak gero eta handiagoak dira asilo-prozeduretan onartzeko; asilo-eskatzaileak biktima bihurtu dira, aurreiritzi publikoaren ondorioz; legedia murriztailegia da.

| | |
|---|--|
| <p>Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak eragin handia izan dezake bere laguntza-lanaren bidez, izan ere:</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Bertatik bertara egin du lan errefuxiatuekin eta lekualdatuekin. • Sinesgarritasuna du, esparruan bertan jasotako egiazko informazioari esker. • Botere-zentroetan dago (ordezkariak ditu Genevan, Erroman, Bruselan eta Washingtonen). • Konpromisoa du laguntza-lanarekin, eta hori da bere betebeharraren funtsezko zatia. |
| <p>Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak hiru arlo nagusitan egiten du bere lana:</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Giza eskubideak urratzearen biktima izan diren banakoen arloan (adibidez, polizia-jazarpenaren biktima izan diren banakoekin). • Pertsona-taldeei eragiten dieten eskubide-urraketen egoera orokorretan (adibidez, elikagai-urritasuna errefuxiatuen esparruetan). • Nahitaezko lekualdatuei eta errefuxiatuei eragiten dieten gai politikoetan (adibidez, derrigorrezko atxilotze-politiketan). |
| <p>Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren laguntza-lanak helburu hauetara bideratutako ekintza guztiak hartzen ditu:</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Behartuta lekualdatuen eta errefuxiatuen eskubideak sustatzera. • Behartuta lekualdatutakoak eta errefuxiatuak tratatzeko jendeak duen modua hobetzera. • Erakundeen eta gobernuaren ekintza sustatzera, behartutako lekualdaketen oinarrizko arrazoiei ekiteko. • Irtenbide jasagarriak sustatzera. |



Nazioarteko babes

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua kezkatuta dago errefuxiatuentzako babes-mailak jaitsi egin direlako leku askotan. Nazioarteko Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak munduko Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren bulegoen ahaleginak koordinatu ditu joera kezkarri horren aurka ekiteko, idatzi politikoak aurkeztuz presio-taldeen, hezkuntzaren eta komunikabideen lanaren bidez eta beste erakunde batzuekin lan eginez.

Genevatik, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren ordezkariak gure kezka agertzen jarraitzen du; kezka horiek esparruetatik iristen dira, eta zerkusia dute errefuxiatuen babes urratzeari buruzko alderdiekin. Era berean, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua ordezkatzeko du nazioarteko bileretan; adibidez, Nazioarteko Babesari buruzko Kontsulta Orokorretan. Horiei esker, ACNURek Babeserako Agenda onartu zuen. Genevako ordezkariak ACNURen batzorde exekutiboaren (ExCom) bileretan ere agertzen ditu Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren kezka.



Lekualdatuen babes

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua oso aktiboa izan da lekualdatuen eskubideak defendatzeko orduan; adibidez, leku hauetan: Burundin, Sudanen, Indonesian, Birmanian, Sri Lankan eta Kolonbian.

2003ko azaroan, lehen bilera egin zuen nazioarteko defentsaren sareak, eta munduko eskualde eta politika arduradun guztiak bildu zituen. Hauxe izan zen bileraren gai nagusia: nola areagotu dezake bere defentsa-lanaren ahalmena Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak, lan egiten dugun errefuxiatuen eta lekualdatuen eskubideen defentsa sustatzeko. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak urtero egiten ditu nazioarteko defentsari buruzko bilerak, jarrera politikoak gehiago garatzeko eta defentsaren plangintza eta koordinazioa gauzatzeko.



Bakerako - hezkuntza eta Giza Eskubideak

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak modu aktiboan parte hartzen du bakerako hezkuntzan eta giza eskubideetan.



Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren irtenbide iraunkorren aldeko defentsa

Aberriratzea edo itzulera

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua tokiko eta nazioarteko foroetako bozeramailea da, errefuxiatuen aberriratze goiztiarrei edo behartutako aberriratzeei buruzko kezka agertzeko orduan. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak, adibidez, gaitzetsi egin zuen Burunditik 2005eko ekainean errefuxiatu ruandarrak aberriratzea behartu izana. Herrialde askotan, aberriratze-prozesuak kontrolatzen ditu Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak eta, horretaz gainera, itzultako pertsona ahulenen eskubideen babesa bermatzen saiatzen da; zeregin horretan dihardu Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak, adibidez, angolarren aberriratzean. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak zeregin hori bete ahal izan zuen errefuxiatuen jatorrizko herrialdean nahiz errefuxiatuak hartzen zituzten herrialdeetan zegoelako.

Errefuxiatuentzako Jesuiten Elkarte mugaz gairik gertatu aurretik horren balioaren lekuko izan zen Mendebaldeko Timorren bizitzen egondako Ekialdeko Timorreko errefuxiatuen itzuleran. Ekialdeko Timorretik ehunka mila lagun irten zirenean, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua uharteko mugaren bi aldeetan ezarri zen 1999. urtean, eta zeregin garrantzitsua bete zuen aberriratzea sustatzeari dagokionez; izan ere, uhartearen bi zatietan bizi ziren komunitateen arteko programak adiskidetzen lagundu zuen.

Lekualdatuek eta errefuxiatuek informazio inpartzial egokia jaso ahal izatea bermatzeko lan egiten du Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak, aberriratzeari edo itzulerari buruzko erabakiak hartu eta aberriratze edo itzultzeko proposamenen plangintza-prozesuan parte hartu ahal izan dezaten.

Tokiko integrazioa

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak puntu hauek defendatzen ditu errefuxiatuentzat, erbestean dauden bitartean: pertsonen autonomia, lurrerako, lan-merkatuarentzako, autoenplegurako, hezkuntzarako eta hizkuntza-ikas-tarotarako, zerbitzuetarako eta mugimendu-askatasunerako sarbidea, eta errefuxiatuak ulertzeko modu negatiboa aldatzea. Errefuxiatuentzako Jesuiten Elkarteak presioa egiten du, halaber, garapenerako laguntza lortu ahal izateko errefuxiatuak hartzen dituzten esparruetan.

Berriz kokatzea

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua ez da jendea berriz kokatzeko agenzia bat; hala ere, berriz kokatzeko sistemaren hobekuntzak defendatzen ditugu. Gai hori jaso du AEBko Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak Washingtonen.



Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak erbestealdiko baldintzei buruz egindako defentsa

Atxiloketa

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak atxilotutako asilo-eskatzaileen eta errefuxiatuen egoera kontrolatzen du eta lege-aholkularitza eman die. Bien bitartean, nazioarteko erakundeei presio egiten die (ACNURi, esaterako), haien beharretan arreta jartzeko, baita errefuxiatu-baldintzaren erabakia azkartu eta kasu oso delikatuak edo presazkoak berriz kokatzeko ere.

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua modu aktiboan aritzen da lan egiten dugun herrialde askotan, etorkinentzako atxiloketa-zentroetan dauden atxilotuei laguntza ematen; esaterako, Los Angelesen, El Pason, Bangkokken, Berlinen, Australian, Maltan eta Afrikako hegoaldean eta ekialdean.

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua errefuxiatuen, asiloa eskatzen dutenen eta etorkinen atxiloketari buruzko nazioarteko koalizio bati batu zaio. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak presioa egiten du gobernuek mugimendu-askatasunari buruzko nazioarteko giza eskubideak eta giza eskubideen legediko atxilotze-aginduak bete ditzaten.

Hezkuntza

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak errefuxiatuek eta lekualdatutako haur guztiek hezkuntzaz baliatzeko aukera izatea defendatzen du, inolako bereizketarik gabe, baita lehen hezkuntzaren ondorengo hezkuntzaz baliatu ahal izatea ere. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren proiektu askoren muina arbuaiatuek (adibidez, neskak, gutxiengoan dauden taldeak eta abar) hezkuntzaz baliatu ahal izatea bermatzea da. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak hezkuntzaren babes-elementua hobetzea sustatzeko eta eskolak inguru babestua izatea bermatzeko lan egiten du. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak errefuxiatuek erbesteratuta zeudenean lortutako notak onartzea ere defendatzen du.

Elikadura-segurtasuna errefuxiatuentzat eta lekualdatuentzat

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak errefuxiatuentzako egungo elikadura-eskasiari buruz ohartarazteko eta arazo hori konpontzeko lan egiten du, baita sistema-aldaketak sustatzeko ere, errefuxiatuei elikadura-segurtasun fidagarria eta egokia emateko.

Hiriko errefuxiatuak

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak hiriko errefuxiatuen beharrei buruzko kontzientziazioa defendatzen eta sustatzen du, eta hiriko errefuxiatuei buruzko ACNURen politiketan eragiteko lan egiten du.

Sexu eta genero indarkeria

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak errefuxiatuen eta emakume eta neskato lekualdatuen sexu eta genero indarkeriaren eraginari buruzko kontzientziazioa sustatzen du, sexu eta genero indarkeriari aurre egiteko lan egiten du, baita sexu eta genero indarkeriatik bizirik irten direnek zerbitzuetara eta laguntzara iritsi ahal izatea bermatzeko ere.

Nazioarteko kanpainak

Haur soldaduen aldeko kanpaina

Haur Soldaduak Erabiltzeari Amaiera Emateko Koalizioak (1998an sortu zuten sei GKE nagusik, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua barne) kanpaina indartsua egin du egun munduko 35 herrialdetan baino gehiagotan borrokan ari diren 300.000 haur soldaduengana arreta erakartzeko. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak hainbat herrialdetako talde armatuetan sartzeko arriskua duten gazteekin ere egiten du lan (Kolonbian eta Venezuelan, esaterako), baita haur soldadu izandakoekin ere (adibidez, Sri Lankan, Burundin eta Thailandian).

Haurren Eskubideen aldeko Konbentzioaren Aukerazko Protokoloa 2002ko martxoaren 12an sartu zen indarrean. Gaur arte, 117 herrialdek sinatu eta 101 herrialdek berretsi dute. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak haur soldaduei buruzko informazioa ematen du zenbait herritan, eta berrespena eta sinadura lortzeko lan egiten du herrialde askotan.

Hau da Haur Soldaduen Erabilerari Amaiera Emateko Koalizioaren web orria: www.menoressoldados.org

Lurreko minak debekatzeko kanpaina

1994. urtean, Lurreko minak debekatzeko nazioarteko kanpainari ekin zion Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak, minek zaurituta-koei laguntzeko, bizirik atera zirenei beren historia kontatzen laguntzeko, ideia etiko sendoak sustatzeko eta kanpaina nazionalak babesteko. 1997. urtean, Bakearen Nobel Saria eman zitzaion kanpainari, eta horrek adorea eman zien kanpainan parte hartu zuten Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuko langile nekaezinei. Tun Chunnarethek Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuarekin lan egin du hainbat urtean, eta hura ere lurreko mina baten biktima da. Lurreko Minak Debekatzeko Nazioarteko Kanpainaren bozeramaile garrantzitsua izan da, eta Bakearen Nobel Saria jaso zuen 1997an, Oslon, kanpainaren izenean. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak lan egiten jarraitzen du beste herrialde batzuek Minak Debekatzeko Ituna sinatzeko eta berresteko. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak informazioa ematen du Lurreko Minak Debekatzeko Nazioarteko Kanpainaren “Lurreko minen urteko kontrola” egiteko; lurreko minen egungo erabilerari, ekoizpenari eta hondamendiari buruzko azterketa sakona da, baita Minak Debekatzeko Ituna edo 1997ko Ottawako hitzarmena sinatu zuten estatuen konpromisoei buruzko kontrol-txostena ere. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak paper nagusia izan du kanpaina horretan, eta Kanbodian, Thailandian eta Indonesian ikerketak egiten lagundu zuen aurten “Lurreko minak kontrolatzeko”. Horrez gainera, lurreko minetatik bizirik atera direnak babesten jarraitzen du Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak hainbat herrialdetan, adibidez, Bosnian, Angolan, Kanbodian, Zambian, Thailandian eta Kosovon. Modu aktiboan egiten du lan, gainera, gai horri buruz kontzientziatzen, bai herrialde horietan, bai minek eragindako beste herrialde batzuetan.

Hau da Lurreko Minak Debekatzeko Nazioarteko Kanpainaren web orria: www.icbl.org/es

Errefuxiatuen, asilo-eskatzailen eta etorkinen atxilotetari buruzko nazioarteko hitzarmena

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua nazioarteko hitzarmen berri horren kide sortzailea da; 2005. urtean jarri zen abian. Hauxe da hitzarmenaren helburua: atxiloteta-politikei eta praktikei buruz kontzientziatzea, eta errefuxiatuen, asilo-eskatzailen eta etorkinen atxilotetari buruzko nazioarteko eta eskualdeko giza eskubidei buruzko arauen eta printzipioen erabilera sustatzea.

Hauk dira hitzarmenaren berariazko helburuak:

- Asilo-eskatzailen, errefuxiatuen eta etorkinen atxilotzeari aurrea hartzea edo atxiloteta horiek mugatzea.
- Atxilotzearen ordezkoko aukerak eta atxilotzeko modu ez hain murriztaileen erabilera defendatzea.
- Atxilotuta daudenekiko errespetu handiagoa eta haien giza eskubideen babesa sustatzea.
- Atxilotze-unerako praktika hobekak garatu eta har daitezen sustatzea.

Hitzarmenaren kezka dira atxilotze-araudiak (atxilotze-prozeduren zainketa eta baldintzak barne) eta errefuxiatuen esparruetako mugimendu-askatasunari buruzko mugak, eta, sareko lanaren bidez, mundu osoan errefuxiatuak, asilo-eskatzailak eta etorkinak atxilotzearekin zerikusia duten gaiak defendatuta, ikertuta eta txostenak eginda landu nahi du hori.

Hau da Errefuxiatuen, asilo-eskatzailen eta etorkinen atxilotetari buruzko nazioarteko hitzarmenaren web orria:

www.idcoalition.org

Etorkizun-aukerak



www.alboan.org

Iruñea

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Bilbo

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Donostia

Erronda Kalea 7, 4. Ezk • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org